Euskararen marka Nafarroako Bortzirietan: bertakoen eta migratzaileen pertzepzioak

La marca del euskera en Bortziriak / Cinco Villas de Navarra: percepciones de la población local e inmigrante

La marque du basque à Bortziriak (Navarre) : perceptions de la population locale et immigrée

The Basque Language Brand in Bortziriak (Navarre): Perceptions of Local and Migrant Residents

MARTIN-ETXEBESTE, Jon
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila
jon.martine@ehu.eus
ORCID: https://orcid.org/0000-0002-0137-9150

LAITA PALLARES, Paula
Soziolinguistika Klusterra
p.laita@soziolinguistika.eus
ORCID: https://orcid.org/0009-0009-1660-7070

Artikulu hau Euskaltzaindiak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 2023an antolatutako Pello Apezetxea Zubiri I. ikerketa-bekaren esparruan egindako ikerketan oinarritzen da.

Egileek eskerrak eman nahi dizkiete bi erakunde horiei, bai eta ikerketan parte hartu duten Bortzirietako biztanleei ere, beren denbora, ekarpenak eta testigantzak eskaintzeagatik. Haien parte-hartzea ezinbestekoa izan da lan hau garatzeko.

Lan hau LAIDA (Literatura eta Identitatea) ikerketa proiektuaren barruan ere kokatua dago; taldea Eusko Jaurlaritzako talde kontsolidatuen parte da (IT 1572/22) eta baita Euskal Herriko Unibertsitatekoa ere (GIU 20/26): www.laida.eus.

DOI: https://doi.org/10.59866/eia.v2i71.354

Jasotze-data: 2026-03-27
Behin-behineko onartze-data: 2026-06-15
Behin betiko onartze-data: 2026-08-28

Euskera Ikerketa Aldizkaria. 2026, 71 (2). 315-349. Bilbo
ISSN 0210-1564

Lan honek Nafarroako Bortzirietako biztanleek euskarari buruz dituzten pertzepzioak aztertzen ditu, hizkuntzen markaren ikuspegitik. 412 erantzuneko galdetegian jasotako izenondoek eta kontsumo-esparruek erakusten dute euskararen balorazio afektiboa positiboa dela. Hala ere, dibertigarritasunaren, modernotasunaren eta zailtasunaren dimentsioetan tentsioak ageri dira, bereziki aisialdi digitalarekin lotuta. Euskara, beraz, «bertakoa» eta «maitatua» da, baina «zaila» eta «ez oso modernoa».

Gako-hitzak: euskara, Nafarroako Bortziriak, migrazioa, hizkuntza-ideologiak, hizkuntzen marka, hizkuntza-pertzepzioak.

Este trabajo analiza las percepciones que la población de Bortziriak / Cinco Villas, en Navarra, tiene sobre el euskera desde la perspectiva de la marca lingüística. Los adjetivos y ámbitos de consumo recogidos en un cuestionario con 412 respuestas muestran que la valoración afectiva del euskera es positiva. Sin embargo, se observan tensiones en las dimensiones de diversión, modernidad y dificultad, especialmente en relación con el ocio digital. Así, el euskera es percibido como «propio» y «querido», pero también como «difícil» y «no muy moderno».

Palabras clave: euskera, Bortziriak / Cinco Villas (Navarra), migración, ideologías lingüísticas, marca lingüística, percepciones lingüísticas.

Ce travail analyse les perceptions que la population de Bortziriak, en Navarre, a de la langue basque, du point de vue de la marque linguistique. Les adjectifs et les domaines de consommation recueillis dans un questionnaire ayant obtenu 412 réponses montrent que l'évaluation affective du basque est positive. Cependant, des tensions apparaissent dans les dimensions du divertissement, de la modernité et de la difficulté, en particulier dans les loisirs numériques. Ainsi, le basque est perçu comme "autochtone" et "aimé", mais aussi comme "difficile" et "peu moderne".

Mots-clés : basque, Bortziriak (Navarre), migration, idéologies linguistiques, marque linguistique, perceptions linguistiques.

This paper analyses the perceptions that the population of Bortziriak, in Navarre, has of the Basque language from the perspective of language branding. The adjectives and areas of consumption collected through a questionnaire with 412 responses show that the affective evaluation of Basque is positive. However, tensions emerge in the dimensions of fun, modernity and difficulty, especially in relation to digital leisure. Thus, Basque is perceived as "local" and "beloved", but also as "difficult" and "not very modern".

Keywords: Basque, Bortziriak (Navarre), migration, language ideologies, language branding, language perceptions.

MARTIN-ETXEBESTE, Jon and LAITA PALLARES, Paula (2026) «The Basque language brand in Bortziriak (Navarre): Perceptions of local and migrant residents», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (2): 315-349.

1 Sarrera
2 Marko teorikoa
2.1 Bortzirietako biztanleria
2.2 Euskararen marka
2.3 Euskarari lotutako izenondoak
3 Metodologia
4 Emaitzak
4.1 Euskara *ederra, maitagarria* eta *dibertigarria* al da?
4.2 Euskara *zaila* al da?
4.3 Euskara *modernoa* al da?
4.4 Euskara *bertakoa* al da?
4.5 Euskara *animalia* izango balitz, zein izango litzateke?
5 Ondorioak
Bibliografia

1 Sarrera

Gizakiak berezkoa du bizi-proiektu hobe baten bila mugitzeko joera. Batzuetan, marra ikusezinak edo militarki markatutako mugak zeharkatu behar izaten ditu beste lurralde batera iristeko. Aldaketa horrek, ordea, beste kultura eta hizkuntza batzuekin topo egitea ere badakar. Etorri den pertsonaren jatorrizko mundu-ikuskerak eragina du harrera-herrialdeko kultura eta hizkuntzarekiko jarreran. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak migratzeko eskubidea aitortzen du: pertsona orok du aske zirkulatzeko eskubidea, bere bizilekua jaiotako estatuan ezar dezake edo beste edozeinetara joan (Nazio Batuen Erakundea 1948).

Euskaldunek ere tradizio migratzaile nabarmena izan dute. Milaka euskaldunek Ameriketan aurkitu zuten aterpea diktadurako urte gogorretan. Gaur egun ere asko dira beste lurralde batzuetara mugitzen diren euskaldunak: 2023an, 37 640 pertsonak egin zuten alde EAEtik; 58 568 pertsona, aldiz, EAEra etorri ziren (EUSTAT 2023). Urte horretan, Nafarroan ere antzeko joera izan zen, sarrerak irteerak baino ugariagoak izan baitziren: 7519 pertsona gehiago izan ziren Nafarroara iritsi zirenak joan zirenak baino (NASTAT 2023). Bortzirietako egungo testuinguruan, biztanleriaren % 9,2 atzerrian jaiotakoa da (Ikardo 2024), eta, euskararen erronkarik nagusiena ez bada ere, migrazio-dinamikei lotutako mugimenduek eragina dute euskararen ekosistema soziolinguistikoan.

Lekualdaketa-prozesuek galera eta ziurgabetasun-egoerak sortzen dituzte. Fishmanen (1991) arabera, hizkuntza identitate etniko eta komunitarioaren ardatz nagusietako bat da; horrenbestez, migrazio-testuinguruetan, jatorri etnikoak eta komunitate-egiturek baldintzatu egiten dituzte hizkuntzarekiko atxikimendua eta hizkuntza-leialtasuna.

Ildo horretan, ikerketa honen galderei lotuta dago euskararen markak nola uztartzen dituen, batetik, tradizionaltasuna eta maitasuna, eta, bestetik, modernitatea eta lanerako beharrak; halaber, aztergai da «zailtasunaren mamuak» noraino baldintzatzen dituen hizkuntzaren transmisioa eta prestigioa (Amorrortu *et al.* 2009). Alde horretatik, lan-aukerek, bizi-kalitatearen itxaropenak eta familia-sareek baldintzatzen dute migratu duen pertso-

naren ongizatea, eta helmugako gizarteko hizkuntzek eta kultur erreferentziek errotik astintzen dituzte migrazio-esperientzia eta integrazio-prozesua.

Hizkuntzen marka (language branding) kontzeptu baliagarria izan daiteke hizkuntza-ukipenean sortzen diren errepresentazioak ulertzeko. Hizkuntzaren markak jendarteak hizkuntza batekiko eraikitzen dituen irudiak, balioak, emozioak eta esanahi sinbolikoak aztertzen ditu, eta baita hiztunek haren bidez lotzen dituzten identitate-, prestigio- eta erabilgarritasun-irudikapenenak ere. Kellerrek eta Lehmannek (2006) proposatu zuten marken identitate-eredua, eta Garaik eta bestek (2020) euskararen kasura egokitu dute: aktibitatea, atxikimendua, jarrerak, asoziazioak (funtzionalak zein sinbolikoak) eta antzematea dira hizkuntzaren pertzepzio-arkitektura osatzen duten dimentsioak. Ikuspegi horretatik, hizkuntza batek posizionamendu lehiakorra eskuratzen du hiztunen hautu linguistikoetan abantailak eskaintzen dituenean. Hizkuntza gutxitu baten kasuan, posizionamendu lehiakorra ez da beste hizkuntzak ordezkatzea, baizik eta hiztunek hizkuntza hori baliagarri, desiragarri eta sozialki esanguratsu gisa hautematea, beren bizi-proiektuetan balio erantsia ematen dien baliabidea den aldetik.

2 **Marko teorikoa**

2.1 **Bortzirietako biztanleria**

Nafarroako Estatistika Erakundeak jasotzen duenez, 2024an, Nafarroak 678 333 biztanle zituen, eta horietatik 85 891 Espainiako estatutik kanpo jaiotakoak ziren (% 12,66). Testuinguru orokor horretan kokatzen da Bortzirietako egoera: Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakak osatzen duten mankomunitate horrek 8524 biztanle zituen 2021ean, eta atzerrian jaiotakoen proportzioa Nafarroako batezbestekoa baino txikiagoa zen (% 9,2).

Azken bi hamarkadetan, Nafarroako migrazio-fluxuak (Espainiako Estatutik jasotakoak nahiz atzerritik etorritakoak, baita Nafarroatik kanpora doazenak ere) nahiko egonkor mantendu dira; hori ikus daiteke migrazio-

mugimenduak alderatzen dituen grafikoan (NASTAT 2023). Aldi berean, jaioterrian bertan bizi diren nafarren kopuruak apurka behera egin du, eta handituz joan da beste leku batean jaiotakoen presentzia, Espainiako Estatuan zein atzerrian jaiotakoena. Joera horrek ondorioak ditu tokian tokiko egitura sozialetan eta hizkuntza- eta kultura-harremanetan, bereziki testuinguru soziolinguistiko euskaldunetan.

Bortzirietan, jaioterriaren araberako bilakaerak egonkortasun demografikoa eta aldaketa gradualak uztartzen ditu. 2004tik 2021era biztanleria ia bere horretan mantendu da (8324 biztanletik 8524ra igaro da); aitzitik, udalerriotan jaiotakoen ehunekoak beheranzko joera izan du, % 62,8tik % 57,3ra. Era berean, udalerriotatik kanpo jaiotakoen pisua handitu egin da, eta Espainiako Estatuan jaiotakoak % 16,4tik % 18,1era igo dira.

Eskualde barruan, Bera da ikerketaren ardatz demografiko nagusia: biztanle gehien dituen herria izateaz gain, atzerrian jaiotako pertsona gehien biltzen dituena ere bada —3759 biztanletik 483, % 12,8— (Ikardo 2024). Horregatik, zentzuzkoa da ikerketan Berak pisu berezia hartzea: eskualdearen hiriburu-funtzioa betetzen du, eta kokapen geografiko estrategikoa du, Irundik eta Hendaiatik oso gertu baitago. Gainerako herrietan, atzerrian jaiotakoen proportzioa txikiagoa da: Igantzin 587 biztanletik 39 (% 6,6), Arantzan 606tik 22 (% 3,6), Etxalarren 828tik 62 (% 7,1) eta Lesakan 2731tik 177 (% 6,5). 2021ean, guztira atzerrian jaiotako 783 pertsona zeuden Bortzirietan, eta horietatik 483 Beran bizi ziren; hortaz, migrazioaren pisua ez da modu homogeneoan banatzen eskualdean, eta barne-desoreka horiek analisiaren ikuspegitik esanguratsuak dira.

Hizkuntza-egoerari dagokionez, Bortzirietako biztanleriaren % 75 euskalduna da (6375 hiztun), % 10,6k bere burua ia-euskalduntzat jotzen du (897), eta % 14,4 erdalduna da (1227), NASTATek 2021ean jasotako datuen arabera. Hala ere, euskal hiztunen kopurua ez da berdina herri guztietan: Arantzan euskaldunak % 91,9 dira; Etxalarren, % 80,4; Igantzin, % 85,3; eta Lesakan, % 78,3. Horrek erakusten du eskualdea oro har euskalduna dela, baina euskararen presentzia soziala eta erabilera ez direla guztiz homogeneoak; gainera, testuinguru soziodemografikoak (besteak bes-

te, migrazioaren intentsitateak) eragina izan dezake tokian tokiko konfigurazio horretan.

Bestalde, estatistiken erabileran badira muga metodologiko nabarmenak. Datuak jasotzeko moduagatik, ez dago Espainiako estatutik Bortzirietara etorritakoen zenbaketa zehatzik, eta «Frantziako estatutik etorritako» gisa sailkatzen dira Ipar Euskal Herritik heldutako hainbat biztanle. Horrek zaildu egiten du migrazioaren errealitatea zehaztasun osoz neurtzea eta jatorri-kategorien interpretazio sinplea egitea, batez ere historikoki joan-etorriko eremu batean delako eta bi estatuen arteko harreman sozial, linguistiko eta ekonomikoak estuak direlako.

Jatorriaren araberako profilaren lehen hurbilketek erakusten dute migratu dutenen artean europarrak (% 44,9) eta amerikarrak (% 49,3) direla nagusi; azken talde horretan, gainera, emakumezkoak dira gehienak (% 60,8). Datu horiek iradokitzen dute migrazioaren genero-dimentsioa kontuan hartu beharreko aldagai analitikoa dela, bai integrazio-bideak ulertzeko, bai lana, familia-sareak, hezkuntza edo hizkuntza-ikasketa bezalako faktoreak aztertzeko.

Hezkuntza-sistemak funtsezko eginkizuna du migratzaileak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko bitartekaritza-lanetan. Ikasteko adina duten Bortzirietako haurren gurasoen hautu nagusia D eredua da (% 91,75); hala ere, atzerrian jaiotako guraso askok A eta B ereduak hautatzen dituzte eta neska-mutil horiek bereziki Berako Jesusen Bihotza ikastetxean eta Toki Ona institutuan ikasten dute. 1996tik 2005era D ereduak % 70etik % 89ra egin zuen gora, eta ordutik aurrera maila altu eta egonkorrean mantendu da. 2016-2021 aldiko bilakaerak erakusten du, bestalde, ikastetxe batzuetan atzerrian jaiotako ikasleen presentzia oso apala dela (D ereduko hainbat ikastetxetan % 1-3 ingurukoa), baina beste batzuetan askoz handiagoa dela, Jesusen Bihotza ikastetxean, esaterako, % 40 inguruan egonkortu baita (Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua 2023).

Azkenik, euskaltegiko matrikulazioek (ikasturte bakoitzean 45 eta 75 ikasle artean) erakusten dute helduen euskalduntzeak presentzia jarraitua duela eskualdean. Horren harira, zenbait gurasok seme-alaben bitartez

barneratzen dute euskarara hurbiltzeko beharra: eskolatzea, sare sozialak eta eguneroko praktikak bide nagusi bihurtzen dira hizkuntza-hautuen eta integrazio kulturalaren konfigurazioan. Ondorioz, migrazioa, hezkuntza eta euskalduntasuna elkarri lotutako dimentsio gisa ageri dira Bortzirietako errealitate soziolinguistikoa ulertzeko; testuinguru horretan kokatzen da, hain zuzen, ikerlan honen interesa.

Moreno Márquezek eta Aierdik (2015) azpimarratzen dute migrazio-prozesuak ezin direla kultura- edo identitate-auzi huts gisa ulertu; aitzitik, harreman-sareek, egitura instituzionalek eta eguneroko praktikek baldintzatutako prozesu sozialak dira. Egileen arabera, migrazioa gehiegi «kulturalizatzeak» integrazioaren inguruko tentsio sinbolikoak areagotu ditzake, eta hizkuntza-hautuak (bereziki hezkuntzan eta aisialdian) pragmatismoaren eta erabilgarritasunaren logikapean egin ohi dira sarritan.

2.2 **Euskararen marka**

Garrantzitsua da kontuan hartzea hizkuntza-praktikak ez daudela soilik gaitasunaren edo eskaintzaren mende. Hizkuntzarekiko jarrerek eta sinesmenek ere eragin zuzena dute, bai euskaltegira hurbiltzeko erabakian, bai hezkuntza-ibilbideetan, bai eguneroko erabileretan eta harreman-sareetan ere. Euskararekiko jarreren barruan, gainera, askotariko usteak biltzen dira. Hizkuntzaren balio instrumentalari eta integratzaileari buruzko ikerketa ugari egin dira, bai eta hizkuntzaren eta ideologiaren arteko harremanei buruzkoak ere (Amorrortu *et al.* 2009; Cenoz 2009; Ortega *et al.* 2013; Urrestarazu *et al.* 2020). Hizkuntzei buruzko iritziek, errealitatean oinarrituak izan edo ez, zuzeneko ondorio soziolinguistikoak dituzte eguneroko praktiketan.

Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak izeneko liburuan Amorrortuk eta bestek (2009: 247), euskara hizkuntza ederra eta interesgarria den galdetuta, parte-hartzaile gehienak (% 67,4) «ados» edo «oso ados» agertu ziren; % 9,2k, aldiz, «desados» edo «oso desados» zegoela adierazi zuen. Era berean, euskara baserritarren edo nekazaritza giroko hizkuntza dela dioen usteak ere arrastoak ditu oraindik. Historikoki askoz

zabalduago egon bazen ere, gaur egun ere ez da erabat desagertu: «el euskera sigue siendo una lengua de aldeanos» baieztapenari dagokionez, adostasuna % 8,5ekoa da, eta desadostasuna, berriz, % 81,1ekoa (Amorrortu *et al.* 2009: 248).

Ikerlan askotan adierazi denez, euskararen gaineko usterik zabalduenetako bat da hizkuntza zaila dela. Maiz ageri da aurreiritzi negatiboen artean ideia bera: euskara oso zaila dela, eta, hortaz, ez duela merezi saiatzea ere. Amorrorturen arabera (2009: 206), % 31,6k aipatu zuen euskararen zailtasuna hizkuntza ez ikasteko arrazoi gisa. Datu hori, ordea, are adierazgarriagoa da ikasketa-mailarekin lotzen denean: lehen mailako ikasketak zituztenen artean, % 45,1ek uste zuen euskara zaila dela; unibertsitate-ikasketak zituztenen artean, berriz, % 22,04k baino ez (Amorrortu *et al.* 2009: 248-249). Ikerlan bereko parte-hartzaileek zailtasunaren ideia jarrera oztopatzaileekin lotzen dute, sarritan aitzakia gisa erabiltzen den uste orokortua delako. Horri gehitzen zaio adinarekin lotutako aurreiritzia: helduaroan hizkuntzak ikastea zailagoa dela uste izateak indartu egiten du aurreiritzi hori, bereziki migratzaileen artean (Amorrortu *et al.* 2009: 207-208). Ildo beretik, «euskara heldutan ikastea ia ezinezkoa da» baieztapenari buruz galdetuta, % 45,3 «ados» agertu zen, eta % 37,5, «desados» (Amorrortu *et al.* 2009: 249).

Gazteen kasuan ere, zenbait ustek euskararen aurkako joerak indartu ditzakete. Amorrortuk eta bestek (2009: 109) diotenez, euskararen erabilerarik ezaren aldagai garrantzitsuetako bat adina da, gazte askok ez baitute hizkuntza «guai» edo moderno gisa hautematen; gaztelania, aldiz, arinagoa eta indartsuagoa iruditzen zaie. Helduaroan euskararen aldeko jarrerak neurri batean berreskura daitezkeen arren, nerabezaroa adin kritikoa izan daiteke hizkuntza-ohiturak finkatzeko, bizitzako etapa horretan ezartzen diren harreman-sareak (ikastetxe berrietan edo unibertsitatean, esaterako) luzaroan egonkortu baitaitezke.

Garaik eta bestek (2020) euskararen marka aztertu dute, Keller eta Lehmannen (2006) *language branding* eredua oinarri hartuta. Eredu horren arabera, hizkuntza-markaren osagai nagusietako bat aktibitatea (*activity*) da: hiztunak hizkuntzarekin duen harremanaren ondorio praktikoa adieraz-

ten du, eta erabileran, ekimenean eta inplikazio sozialean gauzatzen da. Dimentsio horrek hizkuntzari lotutako ekintzak eta erabilerak hartzen ditu barne, eta muturreko kasuetan hizkuntzaren defendatzaile edo deitoratzaile aktibo izatera ere eraman dezake. Beste osagai nagusietako bat atxikimendua da, hau da, hiztunak hizkuntzarekin duen harreman afektiboa; haren bi muturretan, aldeko atxikimendu sendoa dutenak eta aurkako jarrera nabarmena dutenak kokatzen dira. Horri lotuta ulertzen da jarrera (*attitude*) ere, asoziazioetatik eratorritako hizkuntzarekiko juzgu eta sentimendu ebaluatibo edo afektibo gisa. Asoziazioak, berriz, hizkuntzari atxikitako ezaugarriak eta irudiak dira, eta bi motatakoak izan daitezke: funtzionalak, hizkuntzaren erabilerari lotutako ondorio praktikoei dagozkienak; eta sinbolikoak, hizkuntzari lotutako imajinarioari dagozkionak. Azkenik, antzematea markaren (hau da, hizkuntzaren) ezagutza eta oroipena da: hizkuntza zein neurritan datorren gogora erabilera-egoera jakinetan (Garai *et al.* 2020: 9).

Hizkuntza batek jakin-mina nahiz indiferentzia eragin ditzake. Euskararen kasuan, alde liluragarri bat izan dezake (kidetzarik eza edo biziraupenaren misterioarekin lotua), baina baita mespretxua ere. Hizkuntzaren gaineko usteak, iritziak eta jarrerak inertziaz jasotakoak edo sozialki eraikiak izan daitezke. Gainera, uste horiek lotura dute hiztunaren lehen hizkuntzarekin, ideologia politikoarekin eta abertzaletasun-mailarekin; lurraldearen arabera ere aldeak ageri dira. Garaik zuzendutako ikerketaren arabera (2020: 48-49), Araban eta Nafarroan euskal hiztunak gazteago irudikatzen dira Gipuzkoan edo Bizkaian baino.

Ipar Euskal Herrian, berriz, euskararen irudiak zenbait ezaugarri berezi ditu. Han, euskara inon baino maitatuago ikusten da (% 80,7), eta ia inork ez du uste gorrotatua denik (% 0,8). Euskal hiztunei dagokienez, beste lurraldeetan baino irudi idealizatuagoa ageri da (arduratsuak: % 79,1; altruistak: % 65,5; abenturazaleak eta ausartak: % 50,6), baina baita landatar eta kontserbadoreagoa ere (baserritarrak: % 76,8; tradiziozaleak: % 66,8; kontserbatzaileak: % 49,9; zaharrak: % 44,5). Aldi berean, ezaugarri negatibo batzuk ere ehuneko altu samarrean egozten zaizkie: inposatzaile (% 23,2), boterezale (% 31,3) eta subertsibo (% 65,3).

Oro har, euskal hiztunen gaineko erretratu nagusiak ere badu berezko koherentzia bat. Galdetutakoei euskal hiztunak nolakoak diren eskatuta, gehienek abertzaleak (% 60,7), atseginak (% 60,4) eta arduratsuak (% 56,7) direla adierazi zuten. Hiru ezaugarri horien kontrako muturreko aukerak lotzen zituztenek ez zuten % 5 gainditu: ez-abertzaleak (% 4,5), garratzak, zailak edo liskarzaleak (% 5) eta arduragabeak (% 2,7). Era berean, erdiak baino gehiagok euskal hiztuna izatea baserritarra izatearekin lotu zuten (% 53,9), eta gutxik, berriz, hiritarra izatearekin (% 12,9). Euskal hiztuna izatea tradizionaltasunarekin (% 49,6) eta tolerantziarekin (% 47,1) ere lotzen da sarri; aldiz, gutxi dira berritzaileak direla uste dutenak (% 13,2).

2.3 **Euskarari lotutako izenondoak**

Euskarari egozten zaizkion izenondoei dagokienez, hizkuntza honekin gehien lotzen dituzten ezaugarriak honakoak dira: autentikoa, tradizionala eta maitatua (Garai *et al.* 2020: 51). Garairen eta besteren arabera, tradizionaltasun eta autentikotasun kontzeptuak antzinako izaera mitikoari egiten dio erreferentzia; hori bera ageri da zenbait animaliarekin lotutako iruditerian ere, bereziki animalia horiek baserriari eta tradizioei lotzen zaizkienean (Garai *et al.* 2020: 51). Ikerketa berean, inkestatuen % 77,9k euskara «polita» izenondoarekin lotzen du, nahiz eta pertzepzio hori hizkuntzaren jabekuntzaren eta ideologia politikoaren arabera aldatu egiten den. Euskaldunen artean, % 95ek egiten du lotura hori; erdaldunen artean, berriz, % 68k. Ideologiari dagokionez, ezkerrekoen artean edertasunaren pertzepzioa % 82 eta % 99 artekoa da; eskuinekoen artean, aldiz, % 67koa (Garai *et al.* 2020: 33-34). Oro har, esan daiteke Euskal Herriko biztanle gehienek euskara benetakotasunarekin (% 79,6), tradizioarekin (% 68) eta maitasunarekin (% 53,7) lotzen dutela. Kontrara, oso gutxi dira hizkuntza artifizialtzat (% 7,7), modernotzat (% 12,1) edo gorrotatutzat (% 7,6) jotzen dutenak (Garai *et al.* 2020: 42). Gainera, euskaldunen % 59k eta erdaldunen % 37,7k ez dute euskara modernotzat hartzen.

Osagarri gisa, Garaik eta bestek (2020) hizkuntza entzuteak eta erabiltzeak eragiten dituen sentimenduak ere aztertzen dituzte, eta lurraldeen arteko alde nabarmenak identifikatzen dituzte. Gipuzkoan, esaterako, handiagoak dira euskaraz jardutearekin lotutako bizipen baikorrak: inkestatuen % 71,2k adierazten du euskaraz hitz egitean ongi sentitzen dela. Harrotasunari dagokionez ere antzeko aldea ikus daiteke: Gipuzkoan % 51,2k dio euskaraz mintzatzean harro sentitzen dela; Nafarroan, berriz, % 27,9k; eta Ipar Euskal Herrian, % 44,1ek. Gaitasunaren pertzepzioan ere desberdintasunak ageri dira: Gipuzkoan % 54,1ek bere burua gai ikusten du euskaraz hitz egiteko; Nafarroan, ehuneko hori 18,9ra jaisten da; eta Ipar Euskal Herrian, % 21,4koa da (Garai *et al.* 2020: 56).

Sentimendu eta pertzepzio horiek, neurri batean, euskarak eguneroko esparruetan duen presentziarekin eta hizkuntza zein testuingurutan gogora etortzen denarekin lot daitezke. Horregatik, euskararen eta gainerako hizkuntzen antzemate-maila zenbait eremutan neurtu izan da, hala nola eskolan, etxean, lagunartean, sarean, zineman eta literaturan (Garai *et al.* 2020: 9). Testuinguru horretan, ez da harritzekoa euskara eremu gehienetan beste hizkuntzekin batera gogoratzea, kontuan hartuta euskaldun gehienak elebidunak edo eleaniztunak direla: % 98,6k gutxienez bi hizkuntza dakizki, % 43,7k hiru hizkuntza hitz egiten ditu, eta % 20,6k hiru baino gehiago (Garai *et al.* 2020: 9). Hala ere, soilik euskaldunen datuak kontuan hartuta (Bortzirietako errealitatearekin lotura estuagoa izan dezakeen ikuspegia), emaitzak nabarmen aldatzen dira (Garai *et al.* 2020: 17).

Adinaren arabera ere alde argiak ageri dira. Gazteenak dira eskola euskararekin gehien lotzen dutenak: 18 eta 29 urte bitartekoen % 52,4k egiten du lotura hori (euskararekin soilik % 28k, eta euskara beste hizkuntza batzuekin batera % 24,2k). 30 eta 44 urte bitartekoen artean, berriz, % 37,8k lotzen du eskola euskararekin. 45 urtetik gorakoek, hau da, frankismoaren osteko lehen urteetan jaiotakoek, askoz gutxiagotan erlazionatzen dute eskola euskararekin (Garai *et al.* 2020: 15).

3 **Metodologia**

Ikerketa hau Nafarroako Bortzirietako eskualdeko euskararekiko pertzepzioak eta irudikapenak aztertzeko helburuarekin egin da. Ikerlan honetan datuak biltzeko galdetegia eta talde-elkarrizketak erabili badira ere, artikulu honetan aurkezten diren datu gehienak galdetegiaren bidez jaso dira. Galdetegia Bortzirietako ikastetxeetan eta eskualdeko euskaltegian zabaldu zen, eta guztira 412 pertsonak erantzun zuten: 362k euskaraz eta 50ek gaztelaniaz. Beraz, lagina Bortzirietako bost herrietako ikastetxeetako ikasleek osatzen dute nagusiki, 18 urtetik beherako ikasleak (LH5etik Batxilergora): Toki Onakoak dira % 27,3, Ricardo Barojakoak % 21,4, Labiaga Ikastolakoak % 17,8 eta Arantzakoak % 8. Gainerako ikastetxeek (Landagain IP, Igantziko IP eta Irain IP) portzentaje txikiagoa dute. Horiez gain, heldu batzuek ere parte hartu dute, bereziki ikastetxe horietako migratu duten ikasleen gurasoek eta IKA euskaltegiko ikasleek. Generoari erreparatuta, parte-hartzaileen % 57 emakume gisa identifikatu dira, % 41 gizon gisa, eta gainerakoak ez-binario gisa. Parte-hartzaileei galdetegia euskaraz edo gaztelaniaz erantzuteko aukera eman zitzaien, hizkuntzaren araberako pertzepzioak eta jarrerak alderatu ahal izateko. Ondorioz, galdetegia zein hizkuntzatan erantzun den aldagai errepikaria eta analitikoa izan da emaitzak segmentatzeko eta alderatzeko.

Galdetegia, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen bidez helarazi da ikastetxetako zuzendaritzatara. Google Forms bidez zabaldu da, eta erantzunen tratamendurako Excel erabili da. Emaitzetan, talde bakarraren datuak aztertzen direnean, kopuruak islatzen dituzten grafikoak sortu dira; baina euskaraz erantzun dutenen eta gaztelaniaz egin dutenen alderaketak egiteko, batez bestekoak erabili dira.

Azterketa honen ardatzetako bat euskararekin lotzen diren izenondoak identifikatzea izan da. Honako izenondo hauen emaitzak bildu ziren galdetegia erabiliz: «ederra/itsusia», «maitagarria», «dibertigarria», «modernoa», «zaila/erraza» eta «bertakoa». Halaber, parte-hartzaileek euskara zein eremurekin lotzen duten ere neurtu da, honako testuinguru eta erreferentzia hauek kontuan hartuta: «eskola», «musika», «YouTube», «TikTok»,

«lagunak», «gurasoak», «medikua», «goxoki denda», «kirola», «telebista», «irakurri» eta «bidaiatu».

Azkenik, galdetegien ostean ikastetxeko ikasleekin zein gurasoekin eta euskaltegian ikasten ari ziren bost heldurekin egindako talde-elkarrizketan migratzaileek modu askean erabili dituzten izenondoak jasotzeko ahalegina ere egin da: elkarrizketen transkripzioak hartu eta berbaldien kategoria gramatikalak sailkatzeko, IXA taldearen Analhitza baliabidea erabili da. Ondoren, lortutako datuak (eskuzko zuzenketa batzuk egin ostean) Wordclouds webgunearen bidez irudikatu dira (www.wordclouds.com). Artikulu honetan azterketa horren emaitza batzuk jaso dira.

4 **Emaitzak**

Analhitza baliabidearekin egindako elkarrizketen transkripzioetan jasotako izenondoen azterketa bat eginez gero, honako hitzak dira gehien agertzen direnak: «bueno», «igual», «solo», «mejor», «mayor», «rumano», «diferente», «importante», «claro», «vasco», «bonito», «cultural», «pasado», «raro», «grande», «junto», «nuevo». Segidan, azaldutako hitzen tamaina aipamen-kopuruaren arabera ponderatuta dagoen *wordclouda* (4 erabilpenetik gorako hitzak soilik hartu dira kontuan):

1. irudia. Elkarrizketatutako pertsonek aipatutako izenondoak

Atal honetan ikerketaren emaitza nagusiak aurkezten dira, galdetegi bidez jasotako datu kuantitatiboetan oinarrituta. Emaitzak euskararen gaineko pertzepzioak eta irudikapenak aztertzeko hautatutako dimentsioen arabera antolatu dira, bereziki hizkuntzari esleitutako izenondoen eta erabilera- eta identifikazio-esparruekin egindako loturen bidez. Analisiak kontuan hartzen du parte-hartzaileek galdetegia zein hizkuntzatan erantzun duten (euskaraz edo gaztelaniaz), aldagai horrek pertzepzioetan duen eragina azaleratzeko. Ondoko azpiatalek, beraz, euskararen ebaluazio estetikoa, hautemandako zailtasuna, modernotasunaren irudia eta bertakotasunaren esanahia aztertzen dituzte, testuinguru soziolinguistiko jakin batean eraikitako pertzepzio sozial gisa.

4.1 **Euskara *ederra, maitagarria* eta *dibertigarria* al da?**

Garaik eta bestek (2020: 33-34) dioten moduan, hizkuntzaren ebaluazio estetikoa ez da balorazio isolatua, baizik eta hizkuntza-ideologiek egituratutako pertzepzio soziala. Egileek azpimarratzen dute «polita» bezalako kategoria estetikoek hizkuntzaren gaineko jarrerak islatzen dituztela, eta balorazio horiek hizkuntzaren jabekuntzaren zein kokapen ideologikoaren arabera nabarmen alda daitezkeela. Horrek agerian uzten du hizkuntzaren edertasunaren pertzepzioa prestigioarekin eta legitimazio sinbolikoarekin estuki lotuta dagoela. Izan ere, hizkuntza bakoitzak bere ezaugarri gramatikalak eta berezitasunak dituen arren, hiztunek ez dituzte ezaugarri horiek modu neutroan baloratzen, baizik eta testuinguru sozial eta ideologiko jakin batean eraikitzen dituzte haiekiko usteak eta jarrerak. Oro har, hiztun gehienek (beren hizkuntza zapalkuntza edo gutxiespen sozialeko egoeretan bizi izan ez den neurrian) edertasunarekin lotu ohi dute norberaren hizkuntza; alderantziz, deslegitimazio-prozesuek eta hierarkia linguistikoek hizkuntzarekiko atxikimendu afektiboa ahuldu dezakete, baita hiztunengan lotsa edo distantzia sortu ere.

Ildo teoriko horretan kokatzen dira Bortzirietako biztanleen artean jasotako emaitzak ere. Ebaluazio estetikoari buruz negatiboan galdetuta («itsusia» den, alegia), alde esanguratsuak ageri dira: gaztelaniaz erantzun duen

laginaren % 30ak adierazi du euskara itsusia dela, 1. grafikoan ikus daitekeen bezala. Emaitza horrek iradokitzen du hizkuntzaren balorazio estetikoak ez duela beti noranzko bakarreko joera, eta, zenbait kasutan, prestigio- eta legitimazio-hierarkiek balorazio negatiboak ere elika ditzaketela. Aipagarria da, halaber, arabieraren eta «txinoaren» presentzia[1]. Bestalde, kontuan hartu behar da item horri laginaren laurdenak baino ez ziola erantzun, eta, beraz, emaitzak interpretatzerakoan erantzun-tasak berak ere baldintzatzen duela ondorioen sendotasuna.

1. grafikoa. Hizkuntza bakoitzaren itsusitasuna, batezbestekoetan emana



Oharra: Ezkerreko zutabean gaztelaniaz erantzun dutenak, eskuinekoan euskaraz erantzun dutenak.

Balorazio positiboetara itzulita, emaitzek adierazten dute Bortzirietako parte-hartzaileek euskara hizkuntza ederra dela uste dutela. Inkesta euskaraz bete dutenen artean, euskara nabarmen gorago kokatzen da (n = 312) gaztelaniarekin alderatuta (n = 56). Gaztelaniaz bete dutenen artean, aldiz,

[1] Parte-hartzaileek hizkuntzak gehitzeko aukera zuten, eta batzuek «txinoa» idatzi zuten. Horrenbestez, hori izango da ikerketa honetan erabiliko den hitza.

balorazioak parekatuago ageri dira: gaztelania (n = 24) eta euskara (n = 21). Antonimoetara jota, ia inork ez du uste gaztelania «itsusia» denik (n = 2), eta euskara «itsusia» dela diotenak ere gutxi dira (n = 7). Edertasuna gorabehera, bortziriarrek euskara «maitagarria» eta «dibertigarria» dela ere adierazi dute, eta gainerako hizkuntzei ezaugarri horiek askoz maila apalagoan aitortzen dizkiete, 2. grafikoan jasotzen den moduan.

2. grafikoa. Euskara ederra, maitagarria eta dibertigarria al da?



Oharra: «Ederra», «maitagarria» eta «dibertigarria» izenondoen esleipena hizkuntzen arabera (galdetegia euskaraz erantzun dutenak; n = 363).

Bestalde, galdetegia gaztelaniaz erantzun duten pertsonen datuak soilik kontuan hartuta, joera bestelakoa da: parte-hartzaile horien artean gaztelania ederragoa eta maitagarriagoa dela adierazten da, aldeak txikiak badira ere; dibertigarritasunari dagokionez, berriz, aldea nabarmen handiagoa da, gaztelaniaren aldekoa izanik, 4. grafikoak erakusten duen bezala.

3. grafikoa. Euskara ederra, maitagarria eta dibertigarria al da?



Oharra: Galdetegia gaztelaniaz erantzun dutenen artean (n = 50), euskara, gaztelania eta gainerako hizkuntzak «bonito» ('ederra'), «adorable» ('maitagarria') eta «divertido» ('dibertigarria') izenondoekin lotzeko maiztasuna.

Laburbilduz, emaitzek erakusten dute euskararen balorazio estetikoa eta funtzionala («ederra», «maitagarria» eta «dibertigarria» bezalako izenondoen bidez neurtua) ez dela homogeneoa, baizik eta hizkuntzaren jabekuntzarekin eta hiztunaren kokapen soziolinguistikoarekin estuki lotuta dagoen pertzepzioa dela. Euskaraz erantzun dutenen artean, euskara nabarmen ageri da balorazio positibo horien erdigunean; gaztelaniaz erantzun dutenen artean, berriz, balorazioak orekatuagoak dira edo, zenbait kasutan, gaztelaniaren aldeko joera erakusten dute. Horrek berresten du hizkuntzaren ebaluazio estetikoa prestigio-, legitimazio- eta identifikazio-prozesuen isla dela, eta ez hizkuntzaren ezaugarri formalen ondorio zuzena, 3. grafikoan ikus daitekeen hizkuntzen arteko ebaluazio erlatiboa. Era berean, Amorrortuk eta bestek (2009: 247) ere azpimarratzen dute euskararen edertasunarekin eta interesgarritasunarekin lotutako balorazioak, oro har, joera positiboak direla, nahiz eta desadostasunak ere ager daitezkeen. Ondorioz, euskara Bortzirietan, oro har, hizkuntza eder, maitagarri eta dibertigarritzat hartzen bada ere, pertzepzio horiek ez dira homogeneoak, eta hizkuntza-ideologien, esperientzia soziolinguistikoen eta erabilera-testuinguruen arabera aldatzen dira.

4.2 **Euskara *zaila* al da?**

Bortzirietako migratzaile askoren ustez euskara ikastea zaila da eta, ondorioz, herrian integratzeko oztopo nagusietako bat. Herritar gehienek gaztelania hizkuntza errazagotzat dute eta euskara, berriz, oso zailtzat, batez ere ikasteari dagokionean. Pertzepzio hori bat dator aurretik egindako ikerketekin: hainbat lanek adierazi dute euskararen gainean zabalduen dagoen usteetako bat dela hizkuntza zaila dela, eta aurreiritzi horrek sarritan jarrera inhibitzaile edo justifikatzaile gisa funtzionatzen duela (Amorrortu *et al.* 2009). Ildo horretan, euskara zaila delako ustea ez da soilik gaitasun linguistikoarekin lotzen, baizik eta jarrerarekin, motibazioarekin eta hizkuntza-markaren dimentsio afektibo eta sinbolikoekin ere bai (Garai *et al.* 2020). Horrek azaltzen du zergatik agertzen den, bereziki galdetegia gaztelaniaz erantzun dutenen artean, euskara ikasteko zailtasunaren pertzepzio sendoa, gaztelania errazagotzat hartzen den bitartean; ingelesa, aldiz, bi taldeetan antzeko zailtasun-mailan hautematen da, hizkuntza global eta eskolatutzat hartzen den neurrian, 4. eta 5. grafikoan ikus daitekeen bezala.

4. grafikoa. Euskara *erraza* dela uste dutenen batezbestekoa



Oharra: Galdetegia gaztelaniaz eta euskaraz erantzun dutenen arteko alderaketa.

Aurreko grafikoak erakusten du parte-hartzaileek, oro har, galdetegia erantzuteko hautatutako hizkuntza jotzen dutela errazagotzat, bai euskaraz erantzun dutenek, bai gaztelaniaz erantzun dutenek. Hala ere, nabarmentzekoa da euskaraz erantzun dutenen artean gaztelania ere erraztasunarekin lotzen dela neurri esanguratsuan, elebitasun-egoera orokortu baten adierazgarri. Galdera bera antonimoaren bidez planteatuta, hau da, hizkuntzaren zailtasunari buruz, joera alderantzizkoa ageri da: talde bakoitzak beste hizkuntzari egozten dio maizago zailtasunaren pertzepzioa, 6. grafikoak erakusten duen moduan, eta horrek iradokitzen du «erraztasuna» eta «zailtasuna» ez direla kategoria neutroak, baizik eta hizkuntza-esperientziek eta jarrerek baldintzatutako ebaluazioak direla.

5. grafikoa. Euskara *zaila* dela uste dutenen batezbestekoa



Oharra: Galdetegia gaztelaniaz eta euskaraz erantzun dutenen arteko alderaketa.

Zailtasunaren gaineko pertzepzio hori, neurri batean, espero zitekeen gaztelaniaz erantzun dutenen artean; hala ere, emaitzek erakusten dute euskaraz erantzun dutenen artean ere zabaldua dagoela euskara zaila delako ideia.

Izan ere, euskara zaila dela dioten euskaldunen kopurua nabarmen handiagoa da gaztelania zaila dela dioten gaztelania-hiztunen kopurua baino; horrek iradokitzen du euskaldunek ere barneratua dutela zailtasunaren irudikapena, eta zailtasunaren ebaluazioa ez dela soilik erdaldunen edo iritsi berrien pertzepzioa.

Gainera, galdetegiaren erantzun irekietan ere aipatzen da euskararen zailtasuna. Parte-hartzaileen justifikazioak hainbat multzotan antola daitezke. Lehenik, batzuek hizkuntza oro ikasteak dakarren zailtasun orokorra azpimarratzen dute, ikasteko beharrak edo interesak baldintzatzen duela nabarmenduz: «todos los idiomas son difíciles, depende de la necesidad o del interés por aprenderlos». Bigarrenik, sarri azaltzen da euskarak inguruko hizkuntzekin duen antzekotasunik eza (bereziki gaztelaniarekin edo latinarekin loturarik ez izatea) zailtasunaren azalpen gisa. Horren adibide dira euskararen konplexutasun morfosintaktikoa eta lexikoa aipatzen dituzten zenbait erantzun: «porque las frases se construyen al revés que en castellano», «porque tiene un vocabulario y morfosintaxis muy distinto del latín y castellano». Diskurtso horrek, maiz, euskarari egozten zaion «exotismoarekin» egiten du bat: hizkuntza berezi gisa nabarmentzeko erabiltzen den irudiak balioa azpimarra dezakeen arren, zenbait kasutan «arrarotasun» hori zailtasunarekin nahasteko arriskua ere badakar.

Laburbilduz, atal honek erakusten du euskararen «zailtasuna» ez dela soilik gaitasun linguistiko objektiboen ondorioz eraikitzen den irudia, baizik eta esperientzia soziolinguistikoek, hizkuntza-ideologiek eta hizkuntza-markari lotutako iruditeriak elikatzen duten pertzepzio soziala. «Erraztasuna» eta «zailtasuna» elkarren antonimo gisa ageri badira ere, bi kategoriak ez dira neutroak: parte-hartzaileek maiz norberaren hizkuntza-praktikaren, sozializazioaren eta inguruko erreferentzia linguistikoen arabera ebaluatzen dituzte, eta, gainera, diskurtso irekietan agertzen den «zailtasunaren mamua»k (Amorrortu *et al.* 2009) justifikazio funtzio argia har dezake hizkuntza ikasteko edo erabiltzeko erabakietan. Horrenbestez, euskara «zaila» dela esatea ez da soilik deskribapen bat: askotan, integrazioaren, legitimitatearen eta motibazioaren gaineko tentsioak adierazten dituen markatzaile soziala ere bada, eta hurrengo atalean ikusiko den moduan, pertzepzio horrek eragin zuzena izan dezake hizkuntza-hautuetan eta erabilera-joeretan.

4.3 **Euskara *modernoa* al da?**

Euskararen gaineko pertzepzioak aztertzean, modernotasunaren dimentsioa bereziki adierazgarria da, izan ere, hizkuntzak ez dira soilik komunikazio-tresna gisa ebaluatzen, baizik eta irudi sinbolikoen eta balio sozialki kargatuen bidez ere posizionatzen dira. Hizkuntzen marka-ikuspegitik (Garai *et al.* 2020; Keller eta Lehmann 2006), «moderno/tradizional» dikotomiak hizkuntzari atxikitako asoziazio sinbolikoak eta hiztunek hizkuntzarekin eraikitzen duten posizionamendu lehiakorra erakusten ditu, eta, migrazio-testuinguruetan, dimentsio horrek garrantzi berezia hartzen du, integrazio-prozesuak eta kultura-kontsumoko praktikak ere tartean sartzen direlako. Are gehiago, aurreko ikerketek iradoki dute euskararen irudi soziala sarritan tradizioarekin eta «benetakotasunarekin» lotzen dela, eta modernotasunarekin bat etortzeko zailtasunak ager daitezkeela zenbait adin-tartetan (Amorrortu *et al.* 2009). Testuinguru horretan kokatzen da atal honen galdera: euskarak zer toki hartzen du modernotasunaren errepresentazioetan, eta nola gurutzatzen dira pertzepzio horiek hizkuntza-hautuekin eta kontsumo kulturalaren erreferentziekin?

Galdera horri heltzeko, galdetegiaren bidez modernitatearen eta tradizionaltasunaren arteko dikotomia aztertu da bi mailatan: alde batetik, zuzenean galdetuta hizkuntza bakoitza «modernotzat» edo «tradizionaltzat» zuten; eta bestetik, modernitatearekin lotu ohi diren kontsumo kulturaleko esparruekin lotzen zuten galdetuta (adibidez, TikTok, telebista edo antzeko erreferentziak). Emaitzek iradokitzen dute modernotasunari dagokionez bi taldeek antzeko joera dutela: oro har, gaztelania euskara baino modernoagotzat jotzen dute, eta ingelesa ere modernotasunarekin lotzen dute galdetegia euskaraz zein gaztelaniaz erantzun duten parte-hartzaileek (ez da alderik izan bien artean).

Lehenik, «moderno/modernoa» izenondoaren esleipenari dagokionez, emaitzek erakusten dute bi hiztun taldeek antzeko joera dutela: 6. grafikoan ikus daitekeen bezala, ingelesa da modernotasunarekin lotzen den hizkuntza nagusietako bat, bai gaztelaniaz erantzun dutenen artean, bai euskaraz erantzun dutenen artean. Gaztelania ere modernotasunarekin lotzen da neurri handi batean, eta euskara, berriz, maila apalagoan ageri da dimentsio

horretan. Ildo horretan, euskararen pertzepzioak marko teorikoan azaldutako iruditeriarekin egiten du bat: hizkuntza tradizioarekin, autentikotasunarekin eta jarraikortasun historikoarekin gehiago lotzen da, eta modernitatearekin gutxiago (Garai *et al.* 2020). Hortaz, modernotasunaren esleipena ez da ausazkoa, baizik eta hizkuntzen posizionamendu sinbolikoaren ondorio.

6. grafikoa. Euskara, gaztelania eta ingelesa (hurrenkera horretan) eta esleitutako modernotasun maila



Oharra: Galdetegia gaztelaniaz erantzun dutenak ezkerreko zutabean eta euskaraz erantzun dutenak eskuinekoan.

Bigarrenik, modernitatearekin lotu ohi diren kontsumo kulturaleko esparruetan (TikTok, YouTube eta musika), hizkuntzen arteko banaketa are argiagoa da. 7. grafikoak erakusten du bai euskaldunek (eus), bai erdaldunek (esp) nagusiki gaztelaniarekin lotzen dutela ikus-entzunezkoen kontsumoa, eta ingelesaren presentziak ere gorakada nabarmena duela. Hizkuntza bakoitza zein plataformarekin lotzen duten galdetuta, YouTuben eta TikToken oso antzeko erantzun-ereduak ageri dira galdetegia

euskaraz zein gaztelaniaz erantzun dutenen artean; 2024an, beraz, erreferente euskaldunen beharra bereziki larria sumatzen da euskararen komunitate digitalean, presentzia eta identifikazio aukerak indartzeko. Musikaarloan, ordea, 7. grafikoak bestelako joera iradokitzen du: badirudi erreferente gehiago daudela edo eskuragarriagoak zaizkiela, eta datuek euskal kulturaren kontsumo altuagoa erakusten dute (bi taldeetan, baina euskaldunean nagusiki). Ildo horretan, pentsa daiteke gaztelaniaz erantzun dutenentzat ere euskarazko musika talde eta erreferente gehiago ezagutzea baliagarria izan litekeela, euskararen modernitate-irudia eta hurbiltasun sinbolikoa indartzeko.

7. grafikoa. Parte-hartzaileek TikTok, YouTube eta musika zein hizkuntzarekin lotzen dituzte?



Oharra: Galdetegia gaztelaniaz erantzun dutenak (esp) ezkerreko zutabeetan eta euskaraz erantzun dutenak (eus) eskuinekoetan.

Laburbilduz, atal honek iradokitzen du euskararen modernotasunaren pertzepzioa ez dela hizkuntzaren berezko ezaugarri bat, baizik eta erabilera-eremuek, kontsumo kulturaleko ohiturek eta erreferente eskuragarriek bal-

dintzatutako eraikuntza soziala. Izenondoaren esleipenean ageri den hierarkia sinbolikoa (euskararen eta gaztelaniaren arteko desoreka, eta ingelesaren modernotasun-irudi sendoa) indartu egiten da plataforma digitalen inguruko loturetan, non hizkuntzen presentzia eta identifikazio aukerak funtsezkoak diren. Aldi berean, musika-arloan antzematen den euskararen presentzia handiagoak erakusten du modernotasuna ez dela bloke bakarra, eta kultura-praktika jakin batzuetan euskarak posizionamendu sendoagoa lor dezakeela. Ondorioz, euskararen modernitate-irudia indartzeko erronka nagusietako bat ez litzateke soilik diskurtsiboa izango, baizik eta erreferenteen sarea, ikusgarritasuna eta erabilera errealeko espazioak zabaltzearekin lotutako auzia.

4.4 **Euskara *bertakoa* al da?**

Euskararen gaineko pertzepzioetan, bertakotasunaren dimentsioa da kontsentsu handiena sortzen duenetako bat. Galdetegiko emaitzek erakusten dute «bertakoa» izenondoa modu oso zabalean esleitzen zaiola euskarari: euskaraz erantzun dutenen artean adostasun-maila arrunt altua da (% 88), eta gaztelaniaz erantzun dutenen artean ere gehiengo zabal batek (% 72) euskara bertako hizkuntza gisa hautematen du. Datu horrek adierazten du euskararen lurralde-atxikimendua eta tokikotasuna sendo txertatuta daudela iruditeria sozialean, hizkuntza-jabekuntza edozein dela ere.

Hala ere, gaztelaniaz erantzun dutenen artean badago ñabardura esanguratsu bat: % 28k gaztelaniari ere bertako izaera esleitzen dio («de este lugar»). Horrek iradokitzen du bertakotasunaren kontzeptua ez dela soilik hizkuntza historiko edo autoktonoarekin lotzen, baizik eta eguneroko erabilerarekin, sozializazio-esparruekin eta tokiko bizitzan izandako presentziarekin ere eraikitzen dela. Alegia, bertakotasuna ez da kategoria estatikoa, baizik eta esperientzia sozialaren bidez moldatzen den esanahia. 8. grafikoak agerian uzten du bi taldeetan nagusi dela euskararen bertakotasunaren ideia, nahiz eta intentsitate-mailak ezberdinak izan.

8. grafikoa. Bertakotasuna, bi zirkulutan irudikatua



Oharra: Kanpoko eraztunean euskaraz erantzun dutenak eta barrukoan galdetegia gaztelaniaz erantzun dutenenak.

Gaztelaniaz erantzun dutenen artean, «bertakoa» da puntuaziorik altuena lortzen duen izenondoa; haren atzetik datoz «ikastetxekoa» eta «derrigorrezkoa». Horrek erakusten du euskararen pertzepzioak estuki lotuta daudela hezkuntza-eremuarekin, eta hizkuntza, askotan, araututako erabilera-esparru gisa irudikatzen dela. Izan ere, hezkuntza da hizkuntzen presentzia instituzionalizatzen eta sistematikoki antolatzen duen gune nagusietako bat.

Ildo horretan, azpimarratzekoa da «obligatorio» ('derrigorrezkoa') eta «escolar» ('eskolakoa') izenondoek erakusten duten antzekotasuna gaztelaniaz erantzun dutenen artean, eta pareko joera agertzen dela euskaraz erantzun dutenen kasuan «derrigorrezkoa» eta «eskolakoa» terminoekin. 9. grafikoak alderaketa hori bistaratzen du: hizkuntzaren derrigorrezkotasuna eta eskolarekin duen harremana elkar elikatzen diren irudiak direla, bereziki gaztelaniaz erantzun dutenen diskurtsoan.

9. grafikoa. Derrigorrezkotasun maila (ezkerrean) eta hizkuntzen eta hezkuntzaren arteko lotura (eskuineko biak)



Oharra: Galdetegia gaztelaniaz erantzun dutenen erantzunen (*obligatorio, escolar*) eta euskaraz erantzun dutenen (*derrigorrezkoa, eskolakoa*) arteko alderaketa.

Ondorioz, emaitzek erakusten dute euskara, oro har, bertako hizkuntza gisa aitortua dela Bortzirietan, baina pertzepzio hori ez dator beti erabilera librearekin edo atxikimendu afektiboarekin batera. Zenbait kasutan, bertakotasunaren ideia arauarekin, derrigorrezkotasunarekin eta hezkuntza-sistemarekin uztartzen da, eta horrek hizkuntzarekiko distantzia edo instrumentalizazio moduak ere sor ditzake. Atal honek, beraz, agerian uzten du bertakotasuna ez dela balio bakuna edo neutroa, baizik eta bestelako dimentsio sinboliko eta instituzionalekin gurutzatzen den kontzeptu konplexua.

4.5 **Euskara *animalia* izango balitz, zein izango litzateke?**

Euskararen iruditeria soziala sarritan tradizioarekin, autentikotasunarekin eta jarraikortasun historikoarekin lotzen da. Garaik eta bestek (2020: 51) erakutsi bezala, etiketek (tradizionalarenak, esaterako) hizkuntzari antzinatasunaren eta sinbolizazioaren geruza eransten diote, eta irudikapen hori, zenbaitetan, animalien gisako sinbolo zehatzen bidez ere artikulatzen da. Atal hau osagarri eta esploratzaile gisa ulertu behar da: galdetegiko ariketa sinboliko baten bidez, euskarari atxikitako iruditeria eta asoziazioak modu kualitatibo eta orientagarrian jasotzea izan da helburua, emaitza nagusien interpretazioa aberaste aldera.

Testuinguru horretan, galdetegian parte-hartzaileei euskara animalia batekin lotzeko eskatu zitzaien («euskara animalia bat balitz, zein litzateke?»), animalia bakoitzak izan ditzakeen balio sinboliko eta konnotazioen bidez hizkuntzaren gaineko pertzepzio sakonagoak identifikatzeko helburuarekin. Erantzunak askotarikoak izan dira: guztira, 133 animalia mota aipatu dira euskarazko erantzunetan. Aipatuenak honako hauek izan dira: «txantxangorria» (29 aldiz), «ardia» (16 aldiz), «basurdea» (6 aldiz), «lehoia» (8 aldiz) eta «tigrea» (7 aldiz).

Datu horiek ikusita, litekeena da txantxangorriaren presentzia handia lotuta egotea euskara txantxangorriarekin identifikatu duten komunikaziokanpainekin; hala ere, ezin da kausalitatea zuzen-zuzenean baieztatu datu hauetatik abiatuta. Txantxangorria animalia txiki, arin eta ahul gisa hautematen da, baina aldi berean kantu melodikoarekin eta presentzia iraunkorrarekin lotzen da; horrek euskararen edertasuna, gozotasuna eta eguneroko bizitzan etengabe presente egoteko gaitasuna irudikatzeko balio du. Lotura hori ez da kasualitatea, baizik eta diskurtso instituzional eta sozialek elikatutako asoziazio sinbolikoaren emaitza. Kantu anitzetan ere ageri da txantxangorria gure hizkuntzari eta kulturari erreferentzia egiteko.

Ardiaren presentzia ere esanguratsua da. Ardia Euskal Herriko landa- eta artzain-kulturarekin estuki lotutako animalia da, eta, bereziki, ardi latxaren autoktonotasunak euskararen sustraiekin eta jarraikortasun historikoarekin

egiten du bat. Gainera, ardiaren irudia aspaldidanik erabili izan da euskal sinbolo gisa, eta horrek hizkuntzarekin duen lotura indartzen du.

Gurasoetako bat Euskal Herritik kanpokoa duten baina galdetegia euskaraz erantzun dutenen artean ere antzeko joerak ageri dira: ardia lau aldiz aipatu da; zakurra, birritan; eta felido handiak (tigrea, lehoia eta puma) aldi banatan. Halaber, txoriak ere errepikapen jakin batekin ageri dira (txantxangorria, arranoa, enara, kolibria eta txoria, modu generikoan), eta horrek hizkuntzaren arintasuna, bizitasuna eta presentzia sinbolizatzeko joera indar dezake.

Gaztelaniaz erantzun dutenen artean, berriz, errepikapen gutxiago antzematen dira. Aipamenik ohikoenak ornitorrinkoa (4 aldiz), lehoia (5 aldiz) eta txakurra (4 aldiz) izan dira. Txakurra, animalia etxekotu gisa, bi hiztun taldeen artean ageri da maiz; ornitorrinkoa, aldiz, argi lotzen da animalia «arraroaren» konnotazioarekin, eta horrek euskarari egozten zaion berezitasun edo salbuespen izaerarekin egin dezake bat. Horrez gain, ornitorrinkoaren irudiak jatorri misteriotsuaren ideia ere ekar dezake, eta, aldi berean, egokitzapenaren/adaptazioaren sinbolo gisa interpreta daiteke, ezaugarri hibridoak eta ingurune desberdinetan bizitzeko gaitasuna direla medio. Lehoiak, bestalde, indarra, kemena eta noblezia adierazten ditu, eta, horrenbestez, euskara erronkei aurre egiteko gai den hizkuntza sendo eta erresiliente gisa irudikatzeko balio dezake, adibidez.

Atal honek, beraz, euskararen irudikapen sinbolikoari buruzko osagarri moduko pista batzuk eskaintzen ditu: animalien bidezko metaforek hizkuntzari atxikitako balioak, irudiak eta jarrerak agerian uzten dituzte, interpretazio esploratzaile gisa, eta aurreko ataletan azaldutako tradizioaren, edertasunaren eta indarraren diskurtsoekin koherentzian koka daitezke.

5 **Ondorioak**

Artikulu honek Bortzirietako ikasleek, migratzaile-gurasoek eta euskaltegiko ikasleek euskarari zein izenondo eta irudikapen atxikitzen dizkioten aztertu du, hizkuntzen marka (*language branding*) ikuspegitik (Garai *et al.* 2020;

Keller eta Lehmann 2006). Emaitzak ez dira hizkuntzaren ezaugarri formalen ondorio zuzenak, baizik eta esperientzia soziolinguistikoek, hizkuntza-ideologiek eta erabilera-testuinguruek egituratutako ebaluazio sozialak.

Lehenik, balorazio estetiko eta afektiboetan joera orokorra positiboa da: euskara sarritan lotzen da edertasunarekin eta maitagarri izatearekin, eta uste hori Bortzirietan nahiko hedatua ageri da. Ildo horretan, emaitzek bat egiten dute aurreko ikerketekin; Amorrortuk eta bestek (2009) ere erakutsi dute euskararen edertasun eta interesgarritasunaren gaineko balorazioek, oro har, joera positiboa dutela. Hala ere, dibertigarritasunaren dimentsioak ñabardura gehiago erakusten ditu: zenbait taldetan euskara dibertigarri gisa agertzen bada ere, beste batzuetan ez da hain modu «naturalean» lotzen dibertigarri izatea euskararekin. Interpretazio gisa, dibertigarritasuna praktika sozialarekin lotzen den etiketa gisa uler daiteke: aisialdian partekatzen den hizkuntza, beste norbaitekin jardun behar den hizkuntza. Horregatik, baliteke parte-hartzaile batzuek aisiako kontsumoa (eta, bereziki, ikus-entzunezkoena) gaztelaniaz eta ingelesez kokatzea, presentzia handiagoa, erreferente ugariagoak edo «konpetentzia desproportzionatua» antzematen duten neurrian. Era berean, musika-arloan euskarak agertzen duen presentzia sendoagoak iradokitzen du dimentsio kulturalak ez direla bloke bakarra, praktika batzuetan euskarak indar handiagoa baitu.

Bigarrenik, «zailtasunaren mamua» ageri da euskararen iruditerian elementu egituratzaile gisa, eta ez soilik kanpotik etorritakoen diskurtsoan. Amorrortuk eta bestek (2009) jasotako aurreiritzi nagusiekin bat eginez («euskara oso zaila da, eta saiatzea ere ez du merezi» gisako baieztapenekin), Bortzirietako datuek erakusten dute zailtasunaren pertzepzioak justifikaziofuntzioa har dezakeela: hizkuntza ikasteko edo erabiltzeko erabakiak baldintzatzen dituen markatzaile soziala bihurtzen da, eta horrek hizkuntzaren prestigioan eta transmisioan ondorioak izan ditzake. Gainera, zailtasunaren ideia ez da aldagai «natural» gisa ageri, baizik eta hezkuntza-mailarekin, ideologiarekin edo bestelako kokapenekin gurutzatzen den uste sozial gisa interpretatzeko modukoa dela erakusten dute aurreko lanek (Amorrortu *et al.* 2009).

Hirugarrenik, modernotasunaren dimentsioak desoreka sinbolikoa erakusten du. Emaitzen arabera, euskara ez da modernotzat hautematen inguruko hizkuntzekin (gaztelania, ingelesa) alderatuta, eta are argiago ikusten da hori modernitatearekin lotu ohi diren kontsumo-eremuetan (ikus-entzunezkoak, plataformak). Horrek bat egiten du marko teorikoan jasotako ideiarekin: euskararen irudi soziala sarritan tradizioarekin, autentikotasunarekin eta jarraikortasun historikoarekin lotzen da, eta modernotasunarekin bat etortzeko zailtasunak ager daitezke (Amorrortu *et al.* 2009; Garai *et al.* 2020). Ondorioz, euskararen modernitate-irudia indartzeko erronka ez litzateke diskurtsoan soilik kokatuko, baizik eta erreferenteen sarean, ikusgarritasunean eta eguneroko kontsumo-esparruetan presentzia handitzean.

Laugarrenik, bertakotasunaren dimentsioa da kontsentsurik handiena sortzen duenetako bat, eta horrek erakusten du euskararen tokikotasuna sendo txertatuta dagoela iruditeria sozialean. Hala ere, gaztelaniaz erantzun dutenen kasuan bertakotasunaren ideia beste elementu batzuekin gurutzatzen da: «eskolakoa» eta «derrigorrezkoa» etiketekin lotuta agertzen da, eta horrek iradokitzen du euskara, zenbaitentzat, araututako erabilera-esparru batean kokatzen dela bereziki. Ondorioz, euskara «bertakoa» dela aitortzeak ez du automatikoki esan nahi hizkuntza libreki hautatutako praktika gisa bizi denik; batzuetan, tokikotasuna instituzioarekin, arauarekin eta hezkuntza-esperientziarekin batera ulertzen da, eta horrek distantzia edo instrumentalizazio moduak eragin ditzake.

Antzeko joera deskribatzen dute Moreno Márquezek eta Aierdik (2015), eta integrazio-ereduen analisian, hizkuntza nagusiki eskolaren eta administrazioaren bidez ezagutzen denean hizkuntzarekiko lotura instrumentalagoa garatzeko arriskua azpimarratzen dute, atxikimendu afektiboa baino gehiago arauaren bidezko legitimazioa indartzen den testuinguruetan.

Azkenik, atal osagarri eta esploratzaile gisa planteatutako animalien ariketak euskararen irudikapen sinbolikoaren pista interesgarriak eskaini ditzake, aurreko dimentsioekin koherentzian. Alde batetik, ardiaren eta basurdearen presentziak euskararen lotura azpimarratzen du landa-ingurunearekin eta tradizioarekin, eta horrek bat egiten du Garaik eta bestek

(2020: 51) tradizioaren arloari buruz azaldutako iruditeriarekin. Bestetik, txantxangorria gehien agertzeak iradokitzen du kanpaina komunikatiboek edo lehendik ezarrita zeuden nazio sinbologiek eragina izan dutela iruditeria kolektiboan. Gaztelaniaz erantzun dutenen artean ageri diren animalia «arraroagoek» beste dimentsio bat irekitzen dute: euskararen «berezitasun» edo «misterio» gisa eraikitako irudia, edo, zenbait kasutan, bertakotasunaren sinbolizazio berezi gisa funtzionatzen duena.

Laburbilduz, Bortzirietako datuek erakusten dute euskara, aldi berean, bertakoa eta maitatua dela iruditeria kolektiboan; baina, era berean, zailtasunaren diskurtsoak, modernotasunaren esleipen apalagoak eta kontsumo-esparru batzuetako presentzia mugatuagoak hizkuntzaren posizionamendu sinbolikoan tentsioak sortzen dituztela. Marka-ikuspegitik, horrek adierazten du euskarak posizionamendu sendoa duela dimentsio sinboliko jakin batzuetan (tokikotasuna, tradizioa, maitasuna), baina lehiakortasun handiagoa eskatzen duten eremuetan (ikus-entzunezkoak, plataforma digitalak, modernotasunaren irudi soziala) erronka nabarmenak dituela. Ondorioz, hizkuntzaren prestigioa eta transmisioa sendotzeko gakoetako bat izan liteke euskararen presentzia eta identifikazio-aukerak sozialki desiragarriak diren espazioetan indartzea, bereziki erreferenteen, aisialdiaren eta ikusgarritasunaren bidez.

Bukatzeko, emaitzak bat datoz migrazioaren soziologiak egindako ekarpenekin: hizkuntza-hautuak eta hizkuntzarekiko pertzepzioak ez dira soilik banakako borondatearen edo gaitasunaren ondorio, baizik eta egitura instituzionalek, harreman-sareek eta erabilera-esparruen antolakuntzak baldintzatutako erabaki sozialak (Moreno Márquez eta Aierdi 2015). Horrek indartzen du euskararen erronkak ez direla soilik didaktikoak edo diskurtsiboak, baizik eta integrazioaren eta gizarte-antolaketaren eremuan ere kokatzen direla.

Bibliografia

AMORRORTU, Esti, ORTEGA, Ane, IDIAZABAL, Itziar, BARREÑA, Andoni (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak.* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

CENOZ, Jasone (2009). *Towards Multilingual Education: Basque Educational Research from an International Perspective.* Multilingual Matters.

EUSTAT. (2023). *Nafarroako eta Euskal Herriko eskualdeetako biztanleria-datuak.* Euskal Estatistika Erakundea.

FISHMAN, Joshua A. (1991). *Reversing language shift.* Multilingual Matters.

GARAI, Estitxu, AGIRREAZKUENAGA, Irati, GARCIA, Ines, MONGE, Sergio, ELORRIAGA, Angeriñe, AZPILLAGA, Patxi, MIGUEL, Ainara, JAUREGIZURIA, Naroa eta ATXAGA, Koldo (2020). *Euskararen marka.* NIK Ikerketa Taldea. Euskal Herriko Unibertsitatea. https://kontseilua.eus/wp-content/uploads/2024/05/Euskararen-marka_txostena_def.pdf

IKARDO, Urko (2024). *Euskaren bilakaera soziolinguistikoa.* Bortzirietako Euskara Mankomunitatea.

KELLER, Kevin Lane eta LEHMANN, Donald R. (2006). «Brands and branding: Research findings and future priorities», *Journal of Marketing.* https://doi.org/10.1287/mksc.1050.0153

MORENO MÁRQUEZ, Gorka eta AIERDI URRAZA, Xabier (2015). *Migrazioen soziologia: gerturapen teoriko eta praktikoa.* Euskal Herriko Unibertsitatea.

NAFARROAKO ESTATISTIKA ERAKUNDEA (NASTAT). (2023). *Nafarroako biztanleriaren datu estatistikoak.* Nafarroako Gobernua. https://nastat.navarra.es/eu/subtema/-/tag/poblacion

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. (2023). *Nafarroako hezkuntza-sistemaren datu estatistikoak.* Nafarroako Gobernua. https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/estadisticas/estadistica-de-datos-basicos

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. (1948). *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.* Nazio Batuen Erakundea. https://www.ohchr.org/en/human-rights/universal-declaration/translations/basque-euskara

OTEGI, Arantza, IMAZ, Olatz, DÍAZ DE ILARRAZA, Arantxa, IRUSKIETA, Mikel eta URIA, Larraitz (2017). «ANALHITZA: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research», *Procesamiento del Lenguaje Natural* 58: 77-84.

ORTEGA, Ane, AMORRORTU, Estibaliz, GOIRIGOLZARRI, Jone, URLA, Jacqueline eta URANGA, Belen (2013). «Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: "nolako euskalduna naiz?"», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 87-88 (2-3): 151-170.

ORTEGA, Ane, AMORRORTU, Estibaliz, GOIRIGOLZARRI, Jone, URLA, Jacqueline eta URANGA, Belen (2014). «New Basque speakers: linguistic identity and legitimacy», *Digithum* 16: 47-58. UOC. https://doi.org/10.7238/d.v0i16.2182

URRESTARAZU GARCIA, Edurne, ZUBIRIA, Ekhi, eta EIZAGIRRE ARANDIA, Enara (2020). *Migrazio erdalduna herri euskaldunetan: euskararen inguruko bizipenak eta iritziak.* Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea.